

PARETA BEZAIN ZURI

Iraitz Ugalde Pikabea, 17 urte

Lezo

Zuri-zuriak dira gelako hormak. Zurbilak. Itsugarriak. Aulki eskeletiko bat baino ez dut begira, ez dago inor gelan. Atearen kurrinkak atmosfera urduritu du. Erizaina sartu da eta egun onak eman dizkit. Errezela zuriek eguzki udatiarra estaltzeko saiakera egiten dihardute. Baina ezin. Irudimena jabetu da nitaz eta ene burua ikusi dut autoko bolanteari helduta. Abiadura azkarregian noa, eta jendea daramat atzean, eta alboan, Unairekin noa. Baina, kontuz, gelditu... kontuz paretarekin! Aaaa!

–Ondo al zaude?

Erizainak gorputza apur bat astindu dit eta pentsatzeari utzi diot.

–Unai... Non da Unai? –ene! Istripua izan dugu. Bai, parrandatik bueltan. Egia esan, ez dut ezer gogoratzen bart gauaz, istripuaren irudi lausoa baino ez...

Neska gazteak ez dit erantzun. Ez behar bezala behintzat. Izan ere, galdera batez ezin da beste galdera bat ihardetsi. Edukazio txarrekoa omen da, eta amorragarria, inondik ere.

–Nor da Unai?

–Nirekin batera ekarri duten mutila. Nor beste-
la? Non dago? Zein gelatan...

–Esan iezadazu bere abizena eta bilatuko dut.

Ez dut oroitzen. Ezta bere urtebetetze eguna
edota adina ere.

–Ile motza du, beltza... eta ezpain mamitsuak...
ez dakit, nire adin bertsukoa... bila ezazu arren...

Erizainak keinu axolagabea egin du. Ezin duela
paziente bat itxuraren arabera bilatu, bla, bla, bla...
Unai gaixoa. Nire ondoan zihoan... Eta ni baino
okerrago baldin badago? Egiazki ez dut uste nik
ezer larririk dudarik. Ahul sentitzen naiz eta gor-
putza minduta dut, besterik ez.

Azkarregi, azkarregi hoa! Miren, geldi ezan
autoa! MIREN!

Aaaaa!

Oraingoan ez nau erizainak esnatu, eta bai, hor-
maren aurka egin dugu talka. Arnasestuka hasi
naiz, bihotza ez zait bularrean kabitzen, buruak ez
dit erantzuten. Erantzungo balit, istripuaren esze-
na hori alde batera uzteko esango nioke, ezin
dudala istripu bera enegarren aldiz bizi. Ezin duda-
la! Baina, ez dit erantzuten.

Andere bat sartu da gelan. Erizaina joan denetik
ez dakit zenbat denbora igaro den. Musukatu nau,
eta besarkatu. Uko egin diot aurpegia alboratuz. Ez
zaio gustatu.

–Zer moduz zaude Miren? O, laztana, azkenean
esnatu zara! Ez al zara pozten ama ikusteaz?

Ama. Ene buruak bidaiatzeari ekin dio andereak

hizketan diharduen artean. Ama. Ama... Jakina! Hau izango da nire ama... Eta anderea ama dudala izkiriatu dut nire buruko koadernoren batean. Eta harrezkero ez zait arrotza egin emakume hiztuna.

–Non da Unai?

Amak esan dit ez duela Unai ezagutzen. Lausotuta ditut erabat oroitzapenak, bizi izandakoaren kapitulu guztiak (bart gaueko une hura salbu, hori ederki oroitzen baitut). Pentsatzen hasten naizen guztietan autoaren eta hormaren arteko musu bortitza bizitzen dut berriro. Eta erabaki dut ez dudala gehiago pentsatuko. Baina, zenbat eta gehiago saiatu ez pentsatzen, orduan eta estuago heltzen diot bolanteari eta orduan eta indartsuago zapaltzen dut azeleragailua.

Stop!

Erizainak esan dit, berriro Unai bilatzeko eskatu diodanean, ez duela korridore osoan Unai bat bera ere aurkitu. Agian beste solairuren batean egongo dela edo...

Izutzen hasia naiz. Ez ote da trikimailu bat nire osasun mentalaren onerako? Ez ote da errekupe-ratzen naizen arte jarri didaten euskarri fiktizioa, hilik dagoen mutila bizirik dagoela sinetsaraztea? Zergatik egiten dute ezjakinarena, bai erizainak eta baita amak ere? Gezurretan dabilta. Mindu egin naute eta ez dakit nola jokatu, egia badakidala esan edo ezjakinaren plantak egin.

Ez, ez naiz ni ere gezurretan hasiko. Ze arraiio! Ez naiz euren jokoan sartuko.

–Badakit Unai hilik dagoela...

Amak harri eta zur begiratu dit, ziurrenik. Baina, ez nengoen begira. Izan ere, pentsatzetik esatera jauzi handia dago, esateak sinestea baitakar ezinbestean. Eta, ene! Unai hilik egon litekeela onartzea... Negarrari eman diot, izarak apurtu guran mugitu naiz ohatze gainean, ero. Eskuez aurpegia estali dut. Ezin dut Unairen begirada oroitu, auto malapartatuaren eta hormaren elkarrizketa agresibo baina ez.

–Utzi bakean, alde... –hormari ari natzaio, bart Unai eraman didan hormari– ezin dut gelditu, egin ezak bidea, ekarri Unai bueltan...

Ondorengo hitzak ez dira orro ulergaitzak besterik izan. Amak izututa erizainari deitu dio eta orratz batek nire zainetako bati emandako musuzitadak lasaitu nau.

Esnatu naiz. Gaua da jada. Ez dut negar egiteko indarrik. Inoiz baino tristeago sentitzen naiz, baina ez nago urduri. Gorputzaren jabe ez banintz legez sentitu naiz.

Unai, laztana, hator izara artera! Banekian, eder hori, ez hengoela hilda, banekian etorriko hintzela nire bila. Txoko bat egin diot ohearen zuritasunean. Bere azal beltzaranak txokolatea dirudi telazko esnetan. Biluzik gaude, besarkatuta, bera, izarak eta ni. Bularrak ferekatu dizkit. Belarrira zer edo zer xuxurlatu dit. Ez diot ulertu. Ez naiz ahalegingdu. Nahikoa esaten dit bere gorputzak. Izaren bihurguneetan galdu gara. Begiak itxi ditut eta bizirik dagoela sinestarazi nahi izan diot ene buruari, eta sentitzen dudana hozkirri hau berotze-

ra etorri dela nigana. Baina orduantxe autoa ikusi dut berriro eta horma eta azelerazio gehiegizkoa eta oihuak...

–Lasaigarrien efektua pasatzen ari zaio... –urru-
nean, hormaz bestalde edo, erizainaren ahotsa. Altxatzen ahalegindu naiz istripua ekiditearren, pentsatzeari uztearren, baina oheari lotuta nauka-
te.

–Ehun miligramo, azkar...

Lo berriro.

Lasai esnatu da ene gorputza, sekula lokartu ez den buruaren haragizko kaiola. Ama alboan daukat. Negarrez ari da gelditu barik, masailak erabat hazita dauzka.

–Esan egia ama, Unai ez dago ospitalean, hilda dago...

Ez dit erantzun. Eta deliberatu dut nahiago ditudala erizainaren galderazko erantzunak isiltasuna baino. Baieztapen gordinegia da. Harrigarria da laborategietan egiten dena. Auskalo zer likido sartu didaten zainetara negargurarik ere ez sentitzeko gehien maite dudana galdu dudala ohartzean. Baina, horrelakoxeak dira kontuak, lau hodiok nire animoaren manipulatzailerik direnetik.

Hamabost urte baino ez genituen elkarrekin irte-
ten hasi ginenean. Oroitzen al haiz, potxolo? Oso urduri jartzen hintzen hire etxera joaten gintuane-
tan. Eta zer esanik ez sabeleko iletxoek jarraika, gal-
tza artera sartzen nintzaizunean. Zinean ere askotan
izaten ginen, beti beldurrezko filmak ikusten.
Gorroto nituen, baina eszena beldurgarri bat aitz-

kia polita zen bere gainera jauzi egiteko. Eta estu heltzen nion gerritik, begietara tinko begiratzuz, horrela ere urduri jartzen baitzen. Eta urduritzen zenean, dardara egiten zioten ezpaineak eta nik mihiarekin sosegua edanarazten nion. Baina ez dut uste listuaren konposizioaren parte denik sosegua, izan ere, dardara gero eta handiagoa zen. Eta beroa ere bai, eta une batez ahantzi egiten genuen zine-man geundenik. Ez genuen lotsarik. Edo ez genuen kotxerik, hobe esanda. Gerora etorri zen kotxea ohe bilakatzearen joera hori. Han ez zegoen baldintzarik, ez ordurik, ez inor, gu biok salbu. Eta anarkia beroegi hartan jarduten genuen, autoaren atzeko eserlekuen deserosotasuna ahantziz. Autoa. Ene! Berriro ez... Gelditu, Miren, gelditu! Kontuz horma!!!

Eta lasaigarria zainetara berriz ere.

–Hamabi ordutik hamabi ordura jarri lasaigarria, bestela kontrola galtzen du...

Hamabi ordu? Zenbat denbora ote daramat hemen etzanda?

–Ama, zenbat denbora daramat ospitalean?

–Behar den adina egongo zara, polita, osatu arte. –Ama poztu egin da, oraingoan ez baitiot Unairi buruz galdetu.

–Ea zenbat denbora daramadan...

–Bada, zorabiatu zinen gau hartatik.

Zorabiatu? Ez ditut jokoko arauak ulertzen. Gezur batzuk gezur izatera ere ez dira iristen, zeren, gezurrak sinesgarria behar du izan izen hori merezi izateko. Amak bota berri duenak txantxa dirudi. Haserretu egin naiz.

–Zer diozu, zorabiatu... erotu zara ala?

–Bai, laztana, zorabiatu. Ahuleriak konortea galduarazi zizun. Baina, lasai, hemen ondo alimentatuta zaude, sueroak ematen dizu behar duzun guttia.

–Baina, baina, ze suero? Zer diozu ahuleriaz...

Oihurik ozenena ere hasperena litzateke esan nahi diodan guttia esateko. Gorroto dut, ez daki zer dioen, kirioak dantzan jartzen dizkit. Ene! Eskuak loturik ez banitu...

Mirari delako batek egin dit bisita. Psikologoa da, ziur nago. Polizia bestela. Galdetu besterik ez dit egiten. Honek bai, honek Unaiez hitz egiteko eskatzen dit, eta autoaz. Ezin dut jasan. Badaki istorioa, zertarako entzun nahi du berriro? Zauriak gatzatu besterik ez du egiten. Nire izaera eta egoera psikikoa definituko ditu hiru lerro teknikotan egia esaten badiot. Nik ez diot sinesten lagunduko didanik.

–Zein da zure janaririk gustukoena?

Zer uste du atsoak.... mutil laguna galdu berri dut... Zer janari eta janariondo!

–Kurria –ez dut ene bizian probatu, baina ez dut nire berri jakin dezan gura. Nik ere ez dakit oso ondo neure berri, pareta bezain zuri ditut oroitza-penak eta, ez dut neure buruarekiko galdu dudan kontrol hori berak izan dezan nahi.

–Gustuko duzu jatea?

Lo plantak egin ditut. Ez diot erantzun nahi izan eta alde egin du etsita.

Umetan egin zidaten urtebetetze opari batez oroitu naiz. Izugarrizko tarta, txokolatzkoa. Potolo xamarra nintzen umetan, ni banaiz behintzat gogoratutako irudietan ageri dena. Eta etenik gabe ari naiz tarta hori jaten eta puzten eta loditzen... Ispiluan ikusi nahiko nuke neure burua. Ez dut oroitzen nolakoa naizen orain. Baina oheari lotuta naukate eta ezin naiz komunera joateko ere altxa. Zergatik? Unairen bila ez joateko agian.

–Maite duzu? –Mirari honek badaki, bai, non sartu muturra.

–Hilda dago, zer axola dio maite ote dudan...

–Nola hil da?

–Auto-istripuan... badakizu, nire alboan zihoan istripua izan genuenean.

–Autopistan?

–Ez dakit non zen, horma baten aurka jo genuen.

–Zu zinen gidari?

Ez diot erantzun, torturatzaille batadunari. Badaki erantzuna.

–Zergatik hormaren aurka, frenoek huts egin dute?

–Ez, neronek zapaldu dut azeleragailua... Zenbat eta gehiago eskatu gelditzeko, orduan eta gogorra-go zapaltzen nuen, eta azkenean, guztiak hil ditut. Baina, nik ez nuen nahi halakorik...

–Guztiak?

–Unai.

–Ez, guztiak esan duzu.

–Unai. Gutxi iruditzen zaizu? Unai guztia da.

–Unai pertsona bat da?

Surrealismoaz abusatu du zeken halakoak.

–Erotu naizelakoan zaude? Hori da ezta? Istripuak nire garuna kaltetu du eta burua galdu dut...

Ama sartu da gelan. Falta zitzaidana. Ezin dut horrela bizi, uneoro bonbardatzen dituzte nire zelaiak. Unai, utz ezak mundu hori, hator hona, nire ondora...

Amak eta Mirarik gela utzi dute. Ate ondoan entzuten dut beren elkarrizketaren zurrumurrua, geroz eta urrunago. Ez ditut beren hitzak ulertzen.

–Ez da gaitzaz oroitzen, alde batetik seinale ona da. Baina, zeharo nahasita ditu errealitatea eta fikzioa. Unai delakoa ez da hezur-haragizkoa. Bere buruaren asmakizuna baizik. Baina ez nago ziur zeren adierazle den.

–Orduan esan genezake gaitzetik sendatu dela...

–Ez du oroitzen, besterik ez. Hala ere, ez da pozteko kontua, egia eta fikzioa bereizteko gaitasuna erabat galdu duela dirudi. Orain bere fantasien zergatia bilatu behar dugu, irudimenaren fruitu diren elementu guztiek zer adierazten duten...

Ama eta Mirariren ahotsen zurrumurrua ulergaitza egiten zait gelaren barrutik. Isildu egin dira, edo agian korridorean aurrera jarraitu dute. Zurrumurrua amaitu da.

Mirarik istripua zehatz-mehatz kontatzeko eskatu dit.

–Badakizu istorioa... ni gidari eta Unai alboan, eta atzean jende gehiago...

–Nortzuk ziren?

–Ez dakit.

–Min hartu zuten?

–Zer axola dio horrek, Unai heriotzaren atera hurbildu banuen...

–Zuk? Zuk ez zenuen errurik izan...

–Nire ekintzek... eta gelditzeko esan eta jarraitu egiten nuen... Hori ez al da erruduna izatea?

Mirariren koadernoak irakurriko nuke gustura, eleberri ederra izan behar du. Orain ere, kontatu diodan guztia izkiriaren ari da. Ez dakit zertarako, ez dakit zergatik. Bere lana delako.

Gelatik atera da eta medikuarekin egin du topo. Sartzen utzi aurretik, irten egin dira biak minutu batzuek. Zurrumurrua. Burkopera sartu dut burua, ahots lausoak belarrietatik uxatzearen.

–Ideia interesgarriak aurkitu ditut. Kulpabilitate sentipen handia darama beregan. Bere ekin-tzez ingurukoak kaltetzen dituela dio. Eta bere burua ez omen zaio axola.

–Argi dago, orduan, guztia! Puzzlea osatzen ari garela dirudi...

Ordu batzuk daramatzat bakarrik. Horregatik poztu nau Mirariren bisitak. Bakarrik sentitzen naiz oso. Medikuarekin batera sartu da gelan. Bikote ederra osatzen dute, eta esan egingo nieke aurpegiara serio horrekin etorri izan ez balira. Zerbait gertatu dela dirudi.

–Zurekin hitz egin behar dugu, Miren... –mediku jaunari oso ondo ematen dio bata zuriak. Eskuak askatu dizkit eta apur bat gutxitu da nigan gatibu egotearen sentipena.

–Eser zaitez, mesedez.

Ohetik altxa naiz nagi eta leiho ondoko besaulkian eseri.

–Unairen berririk baduzue? –itxaropenezko itauna egin diet, aspaldian galdua badut ere.

–Aski da, Miren. Unai ez da egiazkoa eta badakizu.

Ez dakit benetan esan duen hori edo bere lanaren parte den, nire psikoanalisi egiteko taktika bat. Ea Unai zenbateraino maite dudan jakiteko edo... auskalo, ni ez naiz psikologoa. Medikua isilik dago ate ondoan, bekozkoa ilunduta. Ez dut erantzun, ez baitut galdera ulertu, ez baitzen galdera. Afirmazio absurdoa besterik ez...

–Konta iezaiozu Altuna jaunari zure istripuaren berri.

–Baina, zer demontre! Badakizue guztia! Duela egun gutxi gertatu zen, eta albistegi guztietan atera ziren golf gorriaren irudiak... txiki-txiki eginda geratu zen...

–Eta zuk nola dakizu albistegietan azaldu zela denbora luzea baldin badaramazu ohe honetatik mugitu barik? –Medikuaren hitzek mindu egin naute. Galdera sinplea da, baina ez dut erantzuten asmatu.

–Ez dakit, entzun egingo nuen edo... Ez dakit.

–Gauza asko dira ez dakizkizunak...

–Badakit Unai hilda dagoela.

–Miren, Unai ez da sekula jai...

Isilik geratu naiz.

–Zure amak esan digu ez duzula gidabaimenik.

–Jakina badudala. Nola gidatu dut bestela bart autoa?

–Bart? Hiru aste dira, Miren, ingresatu zintuztenetik. Hiru aste zorabiatu eta konortea galdu zenuenetik.

Zorabiatu? Negarrez hasi naiz, tantaka baina isilik.

–Miren, badakizu zertaz ari naizen... Badakizu zertaz ari naizen... Badakizu, baina ez duzu oroitu nahi... Txokolatego tarta bat emango banizu... jango zenuke?

Umetako tarta hura oroitu dut.

–Loditu egiten du –erantzun automatikoa izanda, pentsatu gabe esana, nik esan izan ez banu bezala, arraroa.

Medikuak irri disimulatua egin du eta Mirarik so egin dio.

–Anorexia duzu, Miren.

Negarrez hasi naiz.

–Utzi azaltzen. Aurretik ere egon zara ospitalean kontu honengatik. Hiru hilabeteko egonaldiaren ondoren etxera itzuli zinen, ustez hobeto zeundelako. Eta orain dela hilabete, zure amak kontatu digunez, astebete jan barik igaro ondoren konorte barik aurkitu zintuen zure gelan. Badira sei egun esnatu zarenetik eta ditxosozko istripu hori besterik ez duzu buruan. Ez dakit nola esan... bart ez zara autoan ibili! Bart gaua, eta aurrekoa, eta hilabete honetako gau guztiak ospitalean eman dituzula...

Bero handia egiten du gelan. Ez diot erantzunik eman aizto zaparrada horri. Oihuka hasi naiz ene gorputzaren kontrola galduta, ahul nago, zorabiatzen ari naiz...

Ba omen dira hiru egun Mirari eta medikuarekin hitz egin nuenetik. Horixe esan dit erizainak esnatu naizenean. Esnatu, bai, baina ez erabat. Pentsamenduen zurrumbilo honek hitz berberak bueltatzen dizkit olatu bakoitzean: anorexia duzu; Unai ez da sekula jaio... aski da! Ez dit bizitzen uzten. Ezin naiz ausartu Unairi buruzko galderak egiten. Onartu beharra dut hilda dagoela.

Mirari berriro etorri da azalpenak ematera.

–Miren, egidazu kasu, kontzentra zaitez nik esandakoan... Hara, amets egin duzu, besterik ez. Istripuarena amets bat izan da, lasai egon zaitezke. Ez da inor hil, ez duzu inor hil... Badakit Unai deitzen diozula maite duzun pertsona orori. Ulertu ezazu, izan hori jarri diezu eta bizirik daude. Aita, ama, lagunak...

–Ez dakit zertaz ari zaren...

–Badakizu. Hara, ulertzen dut errudun sentitzea, eta aurrera pauso bat da. Zure gaitzarekin, zure burua kaltetzeaz gain, ingurukoak ere kaltetzen dituzunaz kontziente izatea oso seinale ona da... Baina ez duzu istripurik jasan. Zure irudimenak, hiru astetako lozorro horretan errealitatea irakurtzeko erabili duen modua izan da. Ametsa...

Horixe esan dit. Istripua baino lehenago bizi izan dudan guztia ametsa izan dela. Nire bitzita fik-

ziozkoa omen da orain. Zergatik da garaile bere hipotesia nirearen ondoan? Anorexia delako horretatik sendatzen ari naizela eta, harro omen daude. Ez dakit zer esan nahi duten zortzi letra horiek. Ez zait interesatzen. Nik Unai aurkitu gura dut, besterik ez.

Laster irtengo naiz pareta zurion artetik. Korridoreko gainerako gazteek nahi luketen *alta* desiratu emango baitidate janariarekiko arazoa gaudituz dudala ikusita. Beldur naiz. Ez dakit prest nagoen ospitaleaz bestaldeko mundura itzultzeko. Izan ere, ez zait itzulera iruditzen, berri-berritik hastea baizik. Oroimenak ematen didana soilik dakit, eta traidore alaena, asmatzaile hutsa da.

Okerrena da Mirariren hitzak nire buruan lekua hartzen ari direla poliki-poliki. Agian medikamenturen baten eraginez, agian arrazonamenduaren eraginez. Ez dakit lotan igaro ditudan hiru asteotan bizi izan dudana ametsa den Unairekin oroitzen dudana guztia. Ez dakit. Agian esnatu aurreko ametsaren azken eszenak izan dira, besterik gabe, eta huraxe dut gogoan. Ez dakit! Baina, Unai biziki maite dudala sumatzen dut, maitatzea hau bada bederen, ene barruan. Esan dezala Mirarik gainetarakoa. Nire psikoanalisi osatua izanen du jada. Eta neronek baino gehiago daki, honezkero, nire bizitzaz. Arrotz zaidan bizitza honetaz. Nirea ez dirudien arren, nik ibili behar dudana bide honetaz.

Nire egia fikziotu duen orori jarriko niokeen ariketa idatzi dut paper batean, Mirarik eskatuta.

“Demagun goiz batean ezagutzen ez dituzun pertsonen inguratuta esnatu zarela. Demagun iraganak bizkarra eman dizula eta aktore izatera kondenatu zaituela zure buruaren azpizoko batek. Demagun ez zarela inoiz esnatuko errealitate deitzen dioten amets honetatik...”

Nahiago nuke norbait nire egoera berean balego. Hartara, biok ikasiko genuke berriro lokarriak lotzen, hizketan, maitatzen eta bizitzen... Hartara ez nintzateke hain bakarrik sentituko. Bizi hau ametsa izango litzateke biontzat eta apur bat gezurrezkoago bilakatuko genuke zuen denen egia.

–Denbora da sendabiderik onena, Miren, izango dugu elkarren berri!

–Agur, Mirari, mila esker guztiarengatik!

Ospitaleko atea automatikoki zabaldu da. Sargori dago eguna. Begiak itxi ditut, hego haizeak ilea nahasi dit.

Lasai, Unai, ohartuko dituk denborarekin... Eta izango haut izara artean, epelduko nauk. Denborarekin. Denborarekin...

Haizeak txistu egin du aparkalekuko autoen artean eta andere lodi baten kapela eraman du hegan. Hemendik begiratuta, urrutira.